



ZUZENBIDE ZIBILA

KOOPERATIBAREN KONKURTZO-KITAPENAREN ERAGINA

IRABAZPIDEZKO SOZIETATEAREN GAINEAN

Ibon VITERI ZUBIA

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Bazkideen erantzukizuna kooperatiban.-1. Kooperatiba sozietatearen erantzukizun mugagabea sozietatearen hartzekodunen aurrean.-2. Bazkideen ez erantzukizuna sozietatearen hartzekodunen aurrean edo harpidetutako kapital-ekarpenetara mugatutako erantzukizuna.-3. Bazkideen erantzukizuna kooperatibaren aurrean eurei egozgarriak diren sozietatearen galerengatik.-**III. Bazkideen erantzukizuna eta kooperatibaren konkurtso-kitapena.-1.** Bazkideei ordainketa atzeratutako ekarpenengatiko kredituen erreklamazioa.-2. Bazkideei galera egoztegatiko kredituen erreklamazioa.-**IV. Irabazpidezko sozietatearen erantzukizuna.-1.** Irabazpidezko eraentzapean ezkondata dagoen bazkide kooperatibistaren ezkontidearen erantzukizun eza KLO-aren 15.3 eta 59. artikuluei jarraiki.-2. Irabazpidezko eraentzapean ezkondata dagoen bazkide kooperatibistaren erantzukizunak ukitzen dituen ondasunak.-**V. Ondorioak.**

I. Sarrera

Lan honek xedetzat du aztertzea zer nolako eragina duen kooperatibaren konkurtso-kitapenak irabazpidezko sozietatearen gainean, ezkontideren bat sozietate horren bazkidea denean. Konkurtsoaren fase horretan bazkideari galdagarria den sozietatearen zorreatatik eta kooperatibak jasan dituen galerengatik balizko erantzukizunak ikerketa hau justifikatzen du, zein azken buruan bideratuta dagoen egiaztatzea, irabazpidezko ezkontza eraentza ekonomikoaren egokitasuna, ezkontideren bat kooperatibaren bazkidea denean.

Azalpenaren ordena aipatu den helburuaren lorpenera egokitua dago. Lehenik, bazkide kooperatibistaren erantzukizunari buruzko gaia jorratzen da. Jarraian aztertzen da, zer nolako eragina duen erantzukizun horren gainean, kooperatibaren konkurtso prozeduraren hasierarekin zabaltzen diren etapa zailtan sartzeak, bereziki, konkurtso-kitapen fasean. Ikerketa irabazpidezko eraentzapean ezkondata dagoen bazkide kooperatibistaren ezkontidearen egoera aztertzen amaitzen da.

Espainia Estatuan kooperatiba-lege aniztasuna dagoenez, nabaritu behar da, ikerketak abiapuntutzat duela 1999ko uztailaren 16ko kooperatibetako estatuko Legea (hemendik aurrera, KLO), aztergaiari buruz lege autonomikoen dituzten berezitasunak jaso arren¹. Halaber, esan beharra dago, lan honek aipamen egiten diela lehen graduko

¹ Espainiako kooperatibei buruzko legeria desberdin eta konplexua da. Bere eraentza orokorra, kooperatiba mota desberdinei aplikagarria dena, Kooperatibei buruzko apirilaren 2ko 3/1987 Lege Orokorra ordezkatzan duen estatuko kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legean eta hainbat Autonomia Erkidegoen kooperatibei buruzko legeetan dago. Izan ere, Autonomia Erkidego guztiek eskuduntza eskusibo hau dute. KLO-aren 2. artikulua ezartzen du: «*La presente Ley será de aplicación: A las sociedades cooperativas que desarrollen su actividad cooperativizada en el territorio de varias Comunidades Autónomas, excepto cuando en una de ellas se desarrolle con carácter principal. A las sociedades cooperativas que realicen principalmente su actividad cooperativizada en las ciudades de Ceuta y Melilla*».

Hau da lege autonomikoen zerrenda: Euskadiko kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legea (hemendik aurrera, EusKL); Extremadurako sozietate kooperatibei buruzko martxoaren 26ko 2/1998 Legea (hemendik aurrera, EXKL); Galiziako kooperatibei buruzko abenduaren 18ko 5/1998 Legea (hemendik aurrera, GKL); Aragoiko kooperatibei buruzko abenduaren 22ko 9/1998 Legea (hemendik aurrera, ARKL); Madril Erkidegoko kooperatibei buruzko martxoaren 30ko 4/1999 Legea (hemendik



kooperatibei izaera orokorrez², alde batera utziz bigarren graduko kooperatibak³ eta kooperatiba taldeak⁴ zein arau bereziak dituzten kooperatibak, kreditu⁵ eta aseguru-kooperatibak⁶ bezala.

aurrera, MEKL); Errioxako kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 4/2001 Legea (hemendik aurrera, EKL); Gaztela eta Leongo kooperatibei buruzko apirilaren 11ko 4/2002 Legea (hemendik aurrera, GLKL); Kataluniako kooperatibei buruzko uztailaren 5eko 18/2002 Legea (hemendik aurrera, KatKL); Balear Uharteko kooperatibei buruzko martxoaren 20ko 1/2003 Legea (hemendik aurrera, BUKL); Valentziako Erkidegoko kooperatibei buruzko martxoaren 24ko 8/2003 Legea (hemendik aurrera, VEKL); Murtziako Eskualdeko kooperatibei buruzko azaroaren 16ko 8/2006 Legea (hemendik aurrera, MUEKL); Nafarroako kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legea (hemendik aurrera, NKFL); Asturietako Printzierriako kooperatibei buruzko ekainaren 19ko 4/2010 Legea (hemendik aurrera, ASTKL); Gaztela-Mantxako kooperatibei buruzko azaroaren 4ko 11/2010 Legea (hemendik aurrera, GMKL); Andaluziako kooperatibei buruzko azaroaren 23ko 14/2011 Legea (hemendik aurrera, AndKL) eta Kantabriako kooperatibei buruzko azaroaren 6ko Legea (hemendik aurrera, KanKL).

² KLO-aren 1. artikulua horrela definitzen ditu lehen graduko kooperatibak: «*una sociedad constituida por personas que se asocian, en régimen de libre adhesión y baja voluntaria, para la realización de actividades empresariales, encaminadas a satisfacer sus necesidades y aspiraciones económicas y sociales, con estructura y funcionamiento democrático, conforme a los principios formulados por la alianza cooperativa internacional, en los términos resultantes de la presente Ley*». Legezko definizio honen garapenarentzat ikus MORILLAS JARILLO, M^a. José, “Concepto y clases de cooperativas”, In: *Tratado de Derecho de Cooperativas*, I. tomoa, Juan Ignacio PEINADO GRACIAK zuzendua eta Trinidad VÁZQUEZ RUANOK koordinatua, Balentzia, tirant lo blanch, 2013, 112-115. orr.

³ KLO-aren 77.1 artikulua xedatzen du: «*Las cooperativas de segundo grado se constituyen por, al menos, dos cooperativas. También pueden integrarse en calidad de socios otras personas jurídicas, públicas o privadas y empresarios individuales, hasta un máximo del cuarenta y cinco por ciento del total de los socios, así como los socios de trabajo. Tienen por objeto promover, coordinar y desarrollar fines económicos comunes de sus socios, y reforzar e integrar la actividad económica de los mismos. Salvo en el caso de sociedades conjuntas de estructura paritaria, ningún socio de estas cooperativas podrá tener más del 30 por 100 del capital social de la misma*». Kooperatibaren integrazio tresna honi dagokionez, ikus VÁZQUEZ PENA, Manuel José, “Grupos Cooperativos. Formas personificadas de integración: cooperativas de segundo grado”, In: *Tratado de Derecho de Cooperativas*, II. tomoa, Juan Ignacio PEINADO GRACIAK zuzendua eta Trinidad VÁZQUEZ RUANOK koordinatua, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013, 1004-1014. orr.

⁴ KLO-aren efektuentzat, kooperatiba taldeetat hartzen da «*el conjunto formado por varias sociedades cooperativas, cualquiera que sea su clase, y la entidad cabeza de grupo que ejercita facultades o emite instrucciones de obligado cumplimiento para las cooperativas agrupadas, de forma que se produce una unidad de decisión en el ámbito de dichas facultades*» (78. art.). Ikus kooperatiba taldei dagokionez, EMBID IRUJO, José Miguel, “Grupos Cooperativos. Formas no personificadas de integración: grupos cooperativos”, In: *Tratado de Derecho de Cooperativas*, II. tomoa, cit., 1014-1046. orr.

⁵ Kreditu-kooperatiben eraentza juridiko espainiarra osatzen dute, maiatzaren 26ko 13/1989 Legeak (KKL) eta bere Erregelamenduak, 22ko urtarrilaren 84/1993 Errege-Dekretuak onartu zuena. Araudizko maila hierarkiko berean daude, Kreditu Kooperatibei buruzko Legea garatzen duten Autonomia Erkidegoen erregelamenduzko arauak. Beheko eskala batean dago, berriz, sozietate kooperatibei buruzko estatu eta autonomia araudia. Kreditu Kooperatiben eraentza juridikoari dagokionez, KKL-aren 2. artikulua xedatzen du: «*Las Cooperativas de Crédito se regirán por la presente Ley y sus normas de desarrollo, sin perjuicio, en cuanto a estas últimas, de las disposiciones que puedan aprobar las Comunidades Autónomas en el ejercicio de las competencias que tengan atribuidas en la materia. También les serán de aplicación las normas que con carácter general regulan la actividad de las entidades de crédito. Con carácter supletorio les será de aplicación la legislación de Cooperativas*». Bere aldetik, KLO-ak bere 104. artikuluan aipamen egiten dio kooperatiba mota honi aplikagarria den araudiari: «*Las cooperativas de crédito se regirán por su ley específica y por sus normas de desarrollo. Asimismo, les serán de aplicación las normas que, con carácter general, regulan la actividad de las entidades de crédito, y con carácter supletorio la presente Ley de Cooperativas cuando su ámbito de actuación estatutariamente reconocido, conforme a su ley específica, sea supraautonómico o estatal, siempre que realicen en el citado ámbito actividad cooperativizada de manera efectiva*».

⁶ Aseguru-kooperatibak aseguru pribatuen ordenamenduari buruzko abuztuaren 2ko 33/1984 Legearekin agertu ziren. Gaur egun, Aseguru Pribatuen Ordenazio eta Ikuskapenari buruzko



II. Bazkideen erantzukizuna kooperatiban

Bazkideek kooperatiban duten erantzukizunari dagokionez, ohikoa da doktrinaren bereiztea, alde batetik, sozietatearen eta bazkideen erantzukizuna sozietatearen hartzekodunen aurrean, eta, bestaldekik, sozietatearen galeren egozte eraentza berezia⁷. Azken honek, jarraian ikusiko dugunez, bazkidearen gainean galerak itzultzeko obligazio ekonomikoaren ezarpena aurreikusten du. Obligazio horretatik bazkideak kooperatibaren aurrean izango lukeen barne-erantzukizun bat eratorriko litzateke, zeinen edukiari buruz doktrinak eztabaidatzen duen.

1. Kooperatiba sozietatearen erantzukizun mugagabea sozietatearen hartzekodunen aurrean

Nahiz eta KLO-ak hura esanbidez ez ezarri, KZ-ren 1911. artikulua ondarezko erantzukizun unibertsalari buruzko printzipioaren eta kooperatiba sozietateari emandako nortasun juridikoaren arabera, kooperatiba sozietateak hirugarrenekin dituen zorrez bere ondarearekin era mugagabe batean erantzuten du⁸. Sozietate motaren bereizitasunak dakar, berriz, kooperatibak erantzutea bere ondare bahigarri osoarekin, Heziketa eta Sustapeneko Fondoa (HSF) eratzen dituzten ondare-elementuen salbuespenarekin⁹. Erreserba hau, bazkideen artean banaezina izateaz gain (sozietatearen desegitearen kasua barne), «*babiezina*» da eta bere diru-kopuruak beste edozein diru-kopuruetatik aparte agertuko dira balantzearen pasiboan (KLO-aren 56.5 art.). Dena den, Heziketa eta Sustapeneko Fondoaren diruak erantzuten du eta bahigarria da bere xedeen betetzeak sortarazitako

Legearen Testu Bateratuak aseguru-kooperatibei eta mutualitatei eskaintzen dizkie bere 9. eta 10. artikulua. Eta Aseguru Pribatuen Ordenazioaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 20ko 2486/1998 Errege-Dekretuaren 23. artikulua horiek arautzen ditu, mutualitateen eraentzara igorritik. KLO-ak aipamen egiten die bere 101. artikuluan: «*Son cooperativas de seguros las que ejerzan la actividad aseguradora, en los ramos y con los requisitos establecidos en la legislación del seguro y, con carácter supletorio, por la Ley de Cooperativas*».

⁷ Bereizketa honi dagokionez, *ikus*, guztiengatik, PANIAGUA ZURERA, Manuel, “Determinación y distribución de resultados en la sociedad cooperativa”, In: *Revista Derecho de los Negocios*, 66. zbkia., 1996, 9-11. orr.; eta egile beraren, “La determinación y la distribución de los resultados del ejercicio económico en la Sociedad Cooperativa: propuestas de armonización legislativa”, In: *Revista de Derecho de Sociedades*, 24. zbkia., 2005, 204. or.

⁸ Esanbidez ezartzen da Kooperatibak bere zorrengatik oraingo nahiz etorkizuneko ondasun guztiekin erantzungo duela, MEKL-aren 5.1 artikuluan, BEKL-aren 4. artikuluan, MUEKL-aren 4. artikuluan, GMKL-aren 7.3 artikuluan, AndKL-aren 53.1 artikuluan eta KanKL-aren 7. artikuluan.

⁹ Heziketa eta Sustapeneko Fondoa derrigorrezko sozietate-fondo bat da, bazkideen prestakuntzara eta kooperatibismoaren sustapenera bideratuta dauden jarduera batzuen kostua ordaintzera zuzenduta dagoena. KLO-aren 1. eta 108. artikuluetan aldarrikatzen diren hezkuntza eta sustapen Printzipio Kooperatibisten benetako aplikazioa bermatzeko, Legeak berak agintzen du, ekitaldiaren soberakin garbien zati bat erreserbatzea Fondo bat hornitzeko. Fondo hau kooperatibaren administrazio-organoak kudeatuko du. KLO-aren 56.1 artikulua arabera, Fondo horren elementuak bideratuko dira xede hauen lorpena: a) bazkide eta langileen prestakuntza eta hezkuntza printzipio eta balore kooperatibistetan edo euren lan nahiz profesional jarduerarekin zerikusia duten gai zehatzetan; b) Kooperatibismoaren zabaltzea eta kooperatiben arteko erlazioak sustatzea, eta, c) Ingurune lokalaren edo komunitatearen sustapen kultural, profesional, sozial, ongintzako eta asistentziala, bizi-kalitatearen hobekuntza eta ingurumen-babesa. *Ikus* horri buruz, MARTÍN CASTRO, M^a Paz, “Régimen económico. Los fondos sociales”, In: *Tratado de Derecho de Cooperativas*, I. tomoa, cit., 650-652. orr.



obligazioengatik eta erantzukizunengatik. Ondorio berdin-berdina eman behar zaio kapital sozialari, hots, sozietateak legezko erreserba honen xedeak betetzeko bereganatu diren zorrengeatik erantzuten du¹⁰.

2. Bazkideen ez erantzukizuna sozietatearen hartzekodunen aurrean edo harpidetutako kapital-ekarpenetara mugatutako erantzukizuna

Sozietateak hirugarrenen aurrean dituen obligazioengatik bazkideen erantzukizunari dagokionez, KLO-ren 15.3 artikulua xedatzen du: «*La responsabilidad del socio por las deudas sociales estará limitada a las aportaciones al capital social que hubiera suscrito, estén o no desembolsadas en su totalidad*».

Arau hau kooperatiba sozietatearen oinarriko erregela baten adierazpen gisa ulertu behar da: sozietatearen hartzekodunek bazkideei ezingo diete exijitu (ezta zuzenean demandatu ere) kooperatibak bereganatutako zorrengeatik eta konpromisoengatik euren ondarearekin pertsonalki erantzun dezaten. Hemen, bazkideen alde, hirugarrenen aurreko *ad extra* erantzukizunaren murrizketa bat aurreikusten da¹¹.

Gainerakoan, nabaritu behar da, arau hau sartu zenean, argi eta garbi ezarri nahi izan zela, aurreko legeetan onartzen zen hurrengo aukeraren indargabetzea: Estatutuek seinalatzea bazkidearen erantzukizunaren izaera mugatua edo mugagabea¹². Era honetan, aurrerantzean, kooperatiba sozietatea, Komertzio Kodeko sozietate kolektiboa ez bezala, erantzukizun mugatuko sozietate gisa, zentzu zabal batean ulertuta, eratzen da¹³.

¹⁰ FAJARDO GARCÍA, Gemma, *La gestión económica de la cooperativa: responsabilidad de los socios*, Tecnos, Madril, 1997, 204-205. orr.

¹¹ EusKL-aren 56.1 artikulua, bazkideen sozietatearen zorrengeatik erantzukizuna harpidetutako kapital-ekarpenetara murriztuta dagoela ezarri baino lehenago, xedatzen du: «*bazkideek ez dute pertsonalki erantzuten sozietatearen zorrengeatik*».

¹² Elkarlanari buruzko 1931ko irailaren 9ko Legeak eta 1943ko azaroaren 11ko Dekretuak, Elkarlanari buruzko 1942ko urtarrilaren 2ko Legea onartzeko zena, onartzen zuten estatutuek ezartzea bazkideen gehigarriko edo mugagabeko erantzukizuna sozietatearen zorrengeatik. Halaber, abuztuko 13ko 2396/1971 Dekretuak, 1942ko Elkarlanari buruzko Legearen Erregelamendu berria onartu zuena, onartzen zuen estatutuek ezartzea bazkideen edozein erantzukizun mota sozietatearen zorrengeatik. Azkenik, bai 1974ko abenduaren 19ko kooperatibei buruzko Legeak bai 1987ko kooperatibei buruzko Lege Orokorrak aurreikusten zuten estatutuetan aukeratu ahal izatea bazkideen erantzukizun mugatua, gehigarria edo mugagabea. *Ikus* lege-aurrekari hauei buruz, FAJARDO GARCÍA, *La gestión económica de la cooperativa...*, cit., 219-223. orr.

Lege autonomiko batzuetan oraindik baimentzen da kooperatiba eratzea erantzukizun mugagabeko sozietate gisa, non bazkideek sozietate zorrengeatik erantzuten duten. Aukera hau estatutuetan egin behar da. Zentzu honetan *ikus* KatKL-aren 54. artikulua, VEKL-aren 4.2 artikulua bigarren paragrafoa, ARKL-aren 47. artikulua lehenengo paragrafoa, EXKL-aren 48. artikulua lehenengo paragrafoa, NKFL-aren 8.1 artikulua eta MEKL-aren 5.3 artikulua.

Bere aldetik, beste lege autonomiko batzuek aukeratu dute ezartzea, estatuko legea bezala, hirugarrenen aurrean *ad extra* erantzukizun mugatu bat. *Ikus* horri buruz, dagoeneko aipatu dugun 56.1 EusKL-aren 56.1 artikulua gain, GKL-aren 6.1 artikulua, GLKL-aren 67. artikulua, MEKL-aren 5.2 artikulua, EKL-aren 27. artikulua, BUKL-aren 68. artikulua, AndKL-aren 53.2 artikulua eta KanKL-aren 20.3 art.

¹³ Komertzio Kodearen 127. artikulua bazkide kolektiboaren sozietatearen zorrengeatik erantzukizunari buruz xedatzen du: «*Todos los socios que formen la compañía colectiva, sean o no gestores de la misma, estarán obligados personal y solidariamente, con todos sus bienes, a las resultas de las operaciones que se hagan a nombre y por cuenta de la compañía, bajo la firma de ésta y por persona autorizada para usarla*». Bazkide kolektiboaren erantzukizunari buruzko arau hau legezko gorputz bereko 237. artikuluan ezartzen denarekin osatzen da: «*Los bienes particulares de los socios colectivos que no se incluyeron en el haber de la sociedad al formarse ésta, no podrán ser ejecutados para el pago de las obligaciones contraídas por ella, sino después de*



Izan ere, zentzu hertsian, bazkide kooperatibistak ez du erantzuten, esan dugunez, sozietateak hirugarrenekin izan ditzakeen zorrenetatik, baizik eta kooperatibarekin konprometituak dituen derrigorrezko zein borondatezko kapital-ekarpenak egiteko obligaziotatik. Hau da, bere zor bategatik, zeinegatik kooperatibaren aurrean zuzenean erantzuten duen. Ondorenez, bere kapital-ekarpenak erabat ordainduta badaude, bazkideak ez du erantzuten inola ere; ordainketa partziala bada, berriz, gainontzekoak sozietateak bazkidearen kontra duen kreditu bat eratzen du, hark honi eska diezaiokeen zor bat¹⁴.

Dena den, KLO-aren 15. artikulua laugarren paragrafoak salbuesten duenez, kooperatiban baja hartzen duen bazkideak pertsonalki erantzuten du. Honek erantzun beharko du «*por las deudas sociales, previa exclusión del haber social, durante cinco años desde la pérdida de su condición de socio, por las obligaciones contraídas por la cooperativa con anterioridad a su baja, hasta el importe reembolsado de sus aportaciones al capital social*»¹⁵. Luzatua, subsidiarioa eta mugatua den erantzukizun hau sozietatearen hartzekodunen aurrean dauka. Izan ere, ordurako bazkideari egozgarriak diren sozietatearen balizko galerak deskontatuak egongo dira (KLO-aren 51.2 art.).

3. Bazkideen erantzukizuna kooperatibaren aurrean eurei egozgarriak diren sozietatearen galerengatik

KLO-aren 59. artikulua bere edukia galeren egozteari eskaintzen dio¹⁶, aginduz derrigorrezko¹⁷ eta borondatezko¹⁸ fondoekin konpentsatu ez diren galerak bazkideei

haber hecho excusión del haber social». Ikus Komertzio Kodean ezarritako bazkide kolektiboaren sozietatearen zorrenetatik erantzukizun pertsonal eta mugagabe honi buruz, PAZ-ARES, Cándido, *La responsabilidad del socio colectivo*, Civitas, Madril, 1993.

¹⁴ Ikus MORILLAS JARILLO, María José eta FELIÚ REY, Manuel Ignacio, *Curso de Cooperativas*, Tecnos, Madril, 2002, 195. or., zeinentzat sozietate mota desberdinentzat ezarritako erantzukizun mugatua, benetan, bazkidearen erantzukizun eza den. Honek, zehazten dutenez, harpidetu dituen kapital-ekarpenetara murrizten den arrisku bat bereganatzen du. Bazkide kolektiboari dagokionez, PAZ-ARESEK baieztatzen du, bazkideen sozietatearen zorrenetatik erantzukizun pertsonal eta sozietatearen zor bat ordaintzeko ondorengo balizko betebeharrak ez direla ekarpena egiteko betebeharraren bezalakoak (*La responsabilidad del socio colectivo*, cit., 119. or.).

¹⁵ Kooperatibei buruzko Legearen Proiektuak ondo esaten zuen “previa excusión del haber social” (BOCG. Congreso de los Diputados Núm. A-125-1 de 27/07/1998, 7. or.). Diputatuen Kongresuak behin betiko onartu zuen testuak (BOCG. Congreso de los Diputados Núm. A-125-14 de 06/07/1999, 379. or.) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak (BOE Núm: 170 de 17/07/1999 núm. marginal: 15681), *supra* jaso duguna, “previa excusión del haber social” esaten dute, ordea. Diputatuen Kongresuaren Aldizkariaren azterketatik eratorzen denez, irrista hori Kooperatibei buruzko Legearen Proiektuaren Batzorde Txostengileak eman zuen Txostenaren ondorioa da (BOCG. Congreso de los Diputados Núm. A-125-10 de 24/03/1999, 207. or.). Kooperatibei buruzko Legearen Proiektuaren izapide-une horretan akatsa gertatu zen, eta behin eta berriro errepikatu zen Gorteen hura behin betiko onartu eta Estatuko Aldizkari Ofizialak hura argitaratu arte. Lege autonomiko batzuek, eredu gisa KLO-a hartu dutenek, “excusión” esan beharrean, era oker batean, “exclusion” esaten dute. ARKL-aren (47. art.), GLKL-aren (67. art.), BUKL-aren (21.3 art.) eta EKL-aren (27.2 art.) kasua da. KanKL berriak, ordea, ondo esaten du “excusión”: «*No obstante, en caso de baja o expulsión, el socio responderá personalmente por las deudas contraídas por la sociedad cooperativa durante su permanencia en la misma, hasta el importe reembolsado de sus aportaciones al capital social, previa excusión del haber social, por un periodo de cinco años a contar desde la fecha de la baja o expulsión*» (20.4 art.). Era berean egiten dute: MUEKL-ak (28.4 art.), ASTKL-ak (4.3 art.), BEKL-ak (24. art.) eta GKL-ak (6.2 art.).

¹⁶ KLO-aren 49.2 artikulua arabera, galeren egozte legezko eraentza aplikatzen da, galerak ezin badira konpentsatu lortu den plusbalioarekin, hala badagokio, kooperatibaren balantzearen



egotziko zaiela, haietako bakoitzak kooperatibarekin burutu dituen eragiketa, zerbitzu edo jarduerak kontuan hartuz¹⁹. Egozte honek zor osoa ukitzen du.

Bazkideei egotzitako galerak ordaintzeko moduari dagokionez, arauak berak ezartzen du ordainketa zuzena edo kenketak bazkideak kapital-sozialari ematen dionetik edo bazkideak kooperatiban egin lezakeen edozein diru-inbertsionatik [59.3.a) art.]²⁰. Halaber, bazkideari hurrengo zazpi urteetan legezkiokkeen itzulketen kontu kitatzeko aukera aurreikusten du. Epe hau igarota konpentsatu gabeko galerak geratuko balira, horiek bazkideak gehienez hilabetekoa izango den epearen barruan ordaindu beharko ditu [59.3.b)]²¹.

Galerak kitatzeko sistema hau eta bazkide baldintza eskuratzeko ezarritako derrigorrezko diru ekarpenari eusteko eskakizuna (KLO-aren 46.4, 5 eta 6 art.) ikusita, doktrina adituenak dudatu gabe dio: «kooperatibako bazkideak sozietatearen zorrenatik hirugarrenen aurrean ez erantzun arren, nabaria da beregana dezakeela berak kapital-sozialera egin duen hasierako kapital-ekarpena mugatzen ez den arrisku bat»²². Bazkidea behartuta gera daiteke kooperatibaren aurrean eskusiboki erantzutera, bere jatorrizko ekarpenen zenbatekotik harantz, galeren egozteagatik, derrigorrezko ekarpen berrien eskaeragatik edota aldizkako kuota ezarpenagatik²³.

eguneratzearekin. Balantzearen eguneratzea ez bada egin, plusbaliorik ez badago edo dagoena gutxiegia izan bada galerei erantzuteko, estatutuek eta araudiak ezarritakoa kontuan hartuko da.

¹⁷ Derrigorrezko Erreserba Fondoari gehienez egotzi ahal izango zaio, galeren jatorriaren arabera, azkeneko bost urteetan edo, kooperatiba bost urte horiek baino berriagoa bada, eratze-unetik fondo horretara bideratu diren gairik kooperatiboan edo etekin extrakooperatiboan edo apartekoan batezbesteko portzentajeak [59. 2. b) art.].

¹⁸ Egongo balira, galeren osotasuna borondatezko erreserba fondoei egotzi ahal izango zaie [59. 2.a) art.].

¹⁹ KLO-aren 59. artikulua irakurketak zalantzaren bat sortu du ezartzen duen ordena aldaezina bada gainean, ez baitu era argi eta garbi batean ezartzen. Hala ere, doktrina esleipen ordenaren aginduzko izaeraren aldekoa agertzen da. KLO-aren 59.2 artikulua «[E]n la compensación de pérdidas la cooperativa habrá de sujetarse a las siguientes reglas» esamoldea erabiltzen duenean eta «[L]a cuantía no compensada con los fondos obligatorios y voluntarios se imputará a los socios en proporción» zehazten duenean, ezartzen du galerak fondoan kontura karga daitezela eta gutxiegiak badira soilik, galerak bazkideei egotzi ahal izango zaie. Are gehiago, soluzio honek bat egiten du soberakinek egiten duten alderantzizko bidearekin. Hauek, itzulketa gisa banatuak izan baino lehenago, fondoetara zuzendutako kenketak jasaten dituzte (KLO-aren 67.2 art.). *Ikus* horri buruz, SUSO VIDAL, José María, “La imputación de pérdidas al socio en la liquidación concursal de la Cooperativa”, In: *Estudios sobre la Ley Concursal: Libro Homenaje a Manuel Olivencia*, Marcial Pons, Madril, 2005, 4857. eta 4858. orr.

²⁰ SUSO VIDALEk onartzen du, bazkideak, galerengatik zorra konpentsatzea, hark berak bazkide edo hirugarren baldintzapean kooperatibaren kontra izan dezakeen beste edozein mota kredituarekin. Horrela, baieztatzen du, galerak konpentsatu ahal izan direla, bazkideak egin dituen ekarpenengatik dagozkion interesekin, bazkideak harpidetu dituen kooperatibaren obligazio-tituluen interesekin nahiz likidoa eta kooperatibari exijigarria den diru-kreditu bat sortarazi dezakeen edozein kontratutik eratorritako interesak (“La imputación de pérdidas...”, cit., 4861-4862 or., nota 30).

²¹ Konpentsazio formula honek eskatzen du Batzar Orokorren aurreko akordioa, hura baimenduz. Aipaturiko akordioak ez du behar indartutako gehiengorik, estatutuek horrela ezartzen badute salbu.

²² URÍA, Rodrigo, MENÉNDEZ, Aurelio eta VÉRGEZ, Mercedes, “Sociedades Cooperativas”, In: *Curso de Derecho Mercantil I*, URÍA Y MENÉNDEZ zuzenduta, Civitas, Madril, 2006, 1441. or.

²³ Horregatik kexatzen da ALFONSO SÁNCHEZ, Rosalía, “Aspectos básicos de la nueva regulación de la sociedad cooperativa (Ley 27/1999, de 16 de julio)”, In: *Cuadernos de Derecho y Comercio*, 31. zbkia., 2000, 185. or.



Bazkideari galerak egozteko aukera kooperatiba erregimenaren berezitasuna da. Sozietate zuzenbidean posibilitate hau erabat ezohikoa da. Bere justifikazio klasikoa bazkideak jarduera kooperatibizatuarekiko duen «erabiltzaile» baldintzan oinarritzen da²⁴. Horrela, kooperatibak bazkideari honek bere alde egin dituen prestazioengatik gehiegi ordaintzen badio edo kooperatibak bazkideari honen alde egin dituenagatik gutxiegi kobratzen badio, diru aurreratze eta ordainketa politika horrek sozietateari eragin dion galera bazkidearen gainean jartzea bidezkotzat jotzen da²⁵.

Hala ere, KLO-ean galera egozte erregimena larriagotuta dago, bazkidea ez baitute ukitzen soilik kooperatibak bazkideekin duen jardueratik eratortzen diren galerek (kooperatiba galera bezala ezagututako galerak). KLO-aren 59. artikulua ez duenez egozte efektuentzat galera mota desberdinen artean bereizten, bazkideari egotziko zaizkio ere galera extrakooperatiboak (bazkideak ez direnekin egin diren jarduera kooperatibizatuaren operazioetatik eratorritakoak edo kooperatibaren objektu nagusi eta bereziarekiko arrotza diren operazioek sortutakoak) eta apartekoak (ibilgetutako aktiboaren elementuen besterentze operazioen ondorioa)²⁶.

Hain zuzen ere, KLO-ak edozein galera motari aplikagarria den konpentsazio sistema bakar bat ezartzen du, kontraesan argian hurbilago duen lege-aurrekariarekin eta lege autonomiko batzuekin. Izan ere, azken hauetan, galera egozte sistema bazkideekin kooperatibizatua dagoen jardueratik eratortzen direnei aplikatzen zaie eta ez da baimentzen bazkideei gainontzekoak (extrakooperatiboak eta apartekoak) era zuzen batean egozte. Lehenik eta osorik Derrigorrezko Erreserba Fondoari egotzi behar zaie (DEF)²⁷.

²⁴ KLO-aren arabera, galerak egozte dago soilik, bazkide «komunari edo arruntari» edo «erabiltzaileari», ezinezkoa izanik egozte bazkide kolaboratzaileei, zeintzuk debekatuta duten aurrera eramatea galerak sortarazten dituen jarduera kooperatibizatua. Bazkide mota honek ezaugarritzat du obligazio nagusi gisa bereganatzea Batzar Orokorrak zehaztuko duen ekarpen ekonomikoa egitea (SUSO VIDAL, «La imputación de pérdidas...», cit., 4859. or.).

Lege autonomiko batzuek aurreikusten dute bazkide kolaboratzailea galeren partaidea egiteko aukera. *Ikus* zentzu honetan, BEKL-aren 28.2 f) artikulua bigarren paragrafoa, KatKL-aren 27 c) artikulua zortzigarren paragrafoa, GMKL-aren 24.1 artikulua bigarren paragrafoa eta NKFL-aren 30. artikulua bigarren paragrafoa.

Lan-bazkideei dagokienez, KLO-aren 13.4 artikulua laugarren paragrafoak xedatzen du: «[...] las pérdidas determinadas en función de la actividad cooperativizada de prestación de trabajo, desarrollada por los socios de trabajo, se imputarán al fondo de reserva y, en su defecto, a los socios usuarios, en la cuantía necesaria para garantizar a los socios de trabajo una compensación mínima igual al 70 por 100 de las retribuciones satisfechas en la zona por igual trabajo y, en todo caso, no inferior al importe del salario mínimo interprofesional». *Ikus* automialegediari buruz VEKL-aren 21.1 artikulua bigarren paragrafoa, ARKL-aren 18.1 artikulua bigarren paragrafoa, MEKL-aren 18.1 artikulua bigarren paragrafoa, GKL-aren 21.4 artikulua, GLKL-aren 25.b) artikulua, GMKL-aren 22.4 artikulua, EXKL-aren 20.3 artikulua bigarren paragrafoa, EKL-aren 30.4 artikulua eta BUKL-aren 27.2 artikulua bigarren paragrafoa.

²⁵ Guztiengatik, FAJARDO GARCÍA, «La imputación de pérdidas en la cooperativa», In: *La participación de los socios trabajadores en los resultados de la cooperativa*, Joxe Mari AIZEGA ZUBILLAGAK koordinatua, EZAI Fundazioa, Oñati, 2003, 187. or. eta hurr. orr., bereziki, 213. eta 214. orr., non galera definitzen duen era honetan: «devolución del socio a la cooperativa de lo que ésta le pagó de más o le cobró de menos».

²⁶ Zentzu honetan, SUSO VIDAL, «La imputación de pérdidas...», cit., 4860. or.

²⁷ Kooperatibei buruzko apirilaren 2ko 3/1987 Lege derogatuak Derrigorrezko Fondo Erreserbari sozietatearen galera extrakooperatiboak eta apartekoak lehentasunezko izaeraz eta erabat egozten zizkion (87.2 eta 3 art.). Sozietatearen kooperatiba galerak, berriz, Derrigorrezko Erreserba Fondoari egotz zekizkiokeen, galera horien ehuneko berrogeita hamarren maximoarekin. Egongo balira, soberakin xedagarriez osaturiko borondatezko erreserba banaezinei, Batzar Orokorrak ezarriko duen portzentajea; eta gainontzekoa bazkideei, bakoitzak kooperatibarekin burutu dituen eragiketa, zerbitzu edo jardueren proportzioan (87.1 art.).



Doktrinaren alderdi batek kritikatu duen KLO-aren aukera honen erreferentzia Euskadiko kooperatibei buruzko Legean dago²⁸. Azken lege honek, ez duenez kontabilizazioan emaitza kooperatibo, extrakooperatibo eta apartekoen artean bereizten, sozietatearen galeren egozte osotasun bat bezala arautzen du, aipamen egin gabe hura sortzen duen jarduerari²⁹. Euskadiko legearen 69. artikulua, estatuko legearen 59. artikulua ia guztiz kopiatzen duena³⁰, koherentea da bazkideak edozein operazioari jarraiki etekina ateratzeko duen aukerarekin (EKL-aren 67.2 art.), bazkideei galera guztiak egozten dizkienean, edozein dela galera hura sortarazi duen operazio mota. Esan den bezala, hura justifikatuta egongo litzateke kooperatibak merkatua eta bere bazkideen artean egiten duen bitartekari jardutean³¹. Zentzu honetan, esan beharra dago, KLO-ean positiboak diren emaitza extrakooperatiboen eta apartekoen ehuneko berrogeita hamar bazkideen artean banatu daitekeela. Beste erdia, berriz, Derrigorrezko Erreserba Fondora bideratu behar da (58.2 eta 3 art.)³².

Beraz, KLO-aren arabera, sozietatearen Estatutuek ez badute galarazten, galerak kontu berezi batera egotziz, berauek amortizatuak izan daitezten geroko emaitza positiboen kontu eta luzeenik zazpi urteko epearen barruan (59.1 art.)³³, kooperatibako bazkideei

Halaber, gaur egun, kooperatibak bazkideekin burutzen duen jarduera ekonomikotik eratorzen diren galerentzat eta sozietatearen gainontzeko galerentzat egozte sistema berezita ezartzen dute, ARKL-ak (58.5 art.), VEKL-ak (60.5 art.), EXKL-ak (63. art.) eta MEKL-ak (61. art.).

²⁸ Alderatu FAJARDO GARCÍA, zein kritikatzten duen KLO-ak ez bereiztea galeren artean, hauek bazkideari egozten zaizkionean. Autore honen ustez, nahiz eta legeak ez zehaztu, bazkideari egozgarriak diren galera bakarrak kooperatiboak dira. Izan ere, ez dira sozietate zorrak, baizik eta bazkidearen zorrak, kooperatibak bere izenean eta bazkidearen kontu burutu duen jarduera batetik eratorri direnak (“La imputación de pérdidas en la cooperativa”, cit., 226-227. orr.). Kritikoak azaltzen dira ere, bazkideei egozteko moduko galerak jarduera kooperatibizatuetatik eratorritako galeretara ez mugatzeko KLO-aren aukerarekin, LLOBREGAT HURTADO, María Luisa, “Régimen económico de las sociedades cooperativas en el marco de la nueva Ley General de Cooperativas de 16 de julio de 1999”, In: *Revista de Derecho de Sociedades*, 13. zbkia., 1999, 199. or. eta hurr. orr. eta VARGAS VASSEROT, Carlos, “La solvencia y garantías de las cooperativas en el tráfico. Algunas peculiaridades de su concurso”, In: *Revista de derecho Concursal y Paraconcursal*, 8. zbkia., 2008, 287. or.

²⁹ GADEA SOLER, Enrique, *Derecho de las Cooperativas. Análisis de la Ley 4/1993, de 24 de junio de cooperativas del País Vasco*, Universidad de Deusto, Bilbo, 2001, 230. or.

³⁰ Bi dira arau bien artean dauden desberdintasun aipagarrienak. Lehenengoak ukitzen du galerak kontu berezi bati edo geroko itzulketei egozteko aurreikusten den epe maximoa: bost urte Euskadiko Legean eta zazpi estatukoan. Bigarrenak zerikusia du Derrigorrezko Erreserba Fondoari egiten zaion egoztearekin. Estatuko Legeak, Euskadikoak ez bezala, galeren jatorria kontuan du. Zehazki, EusKL-aren 69.2 b) artikulua xedatzen du: «*Gaundikin positiboak izandako azkeneko bost urteetan edo, kooperatiba bost urte horiek baino berriagoa bada, eratze-UNETIK beretik legez derrigorrezkoak diren fondoetara bideratu direnen bataz bestekoa egotz daiteke gebienez Derrigorrezko Erreserba Fondora*». Bere aldetik, KLO-aren 59.2 b) artikulua agintzen du: «*Al fondo de reserva obligatorio podrán imputarse, como máximo, dependiendo del origen de las pérdidas, los porcentajes medios de los excedentes cooperativos o beneficios extracooperativos y extraordinarios que se hayan destinado a dicho fondo en los últimos cinco años o desde su constitución, si ésta no fuera anterior a dichos cinco años*».

³¹ “Primera parte: Conclusiones generales”, In: *La participación de los socios trabajadores en los resultados de la cooperativa*, cit., 76. or.

³² LLOBREGAT HURTADOK arau hau kritikatzten du. Egile honek arauari esleitzen dio kooperatiban irabazteko asmoa sartu izana, itzulketa kontzeptupean bazkideen artean etekinen zati baten banaketa ezartzerakoan (“Régimen económico de las sociedades cooperativas en el marco de la nueva Ley General de Cooperativas de 16 de julio de 1999”, cit., 226. or.).

³³ Halako kasuan, SUSO VIDALEK baieztatzen du, zuzenki kooperatiba eta zeharka bazkide guztiak ukitzen dituen galeren erabateko eta bereizi gabeko banantzea ematen dela, bazkide bakoitzaren jarduerarekin zerikusirik ez duena (“La imputación de pérdidas...”, cit., 4856. or.). Egozte formula hau kritikatzten du BORJABAD GONZALO, “La sociedad cooperativa en la Ley 27/1999”, In: *La*



edozein sozietatearen galera egotzi ahal izango zaie, zeinengatik era mugagabe batean erantzun beharko duten. KZ-ren 1911. artikulua aurreikusten duen moduan, bere oraingo nahiz geroko ondasun guztiekin³⁴.

Hala ere, hemen nabaritu behar da, lege autonomiko modernoek bazkide erabiltzaileek sozietatearen galerengatik *ad intra* izan dezaketen erantzukizuna murriztu dutela. Lehenik, Balentziako Erkidegoko kooperatibei buruzko Legeak egin zuen, bere 69.3. artikuluan xedatuz: «*Si los estatutos sociales lo establecen, las pérdidas derivadas de la actividad cooperativizada con los socios que se imputen a éstos, alcanzarán como máximo el importe total de los anticipos asignados a los socios en el ejercicio económico, más sus aportaciones a capital social y su participación en las reservas repartibles*». Berriki, 2011ko Andaluziako kooperatibei buruzko Legeak (69.2 *in fine* art.) eta 2013ko Kantabriako kooperatibei buruzko Legeak (72.2 *in fine* art.) preskribatu dute: «*Las pérdidas se imputarán al socio hasta el límite de sus aportaciones al capital social*».

Azken formula honen bidez, iritzi aditu baten arabera, azkarregi eta hura onartzeak kooperatiba sozietateentzat dakarren ondare ahultasunean pentsatu gabe³⁵, Andaluziako eta Kantabriako legeek berea egin dute doktrinaren alderdi baten eskaera, hain zuzen ere, tradizionalki sozietatearen zorrengatik erantzukizuna eta galeretan partehartzea nahastu dituenarena³⁶.

Nahasketa hura abiapuntua izanik, doktrinaren alderdi horrek normalean proposatu izan du ulertzea, KLO-aren 59. artikuluan aurreikusitako bazkideen galerengatik erantzukizuna bazkideak egin dituen kapital-ekarpenak galtzera murrizten dela. Proposamen hau egiten dute, uste dutelako bazkide kooperatibistaren *ad intra* erantzukizuna bere kapital-ekarpena baino gehiago hedatzea kontraesankorra dela KLO-aren 15.3 artikuluan ezarritako *ad extra* erantzukizun mugatuarekin³⁷ eta bidegabekoa sozietate kapitalistetan gertatzen den egoerarekiko, batez ere, azken hauen kapital erregimena eta antolatzeak egiturak ahalik eta gehien bereganatu nahi izan direnean³⁸.

sociedad cooperativa en la Ley 27/1999, de 16 de julio, de Cooperativas, Francisco J. ALONSO ESPINOSAK koordinatua, Comares, Granada, 2001, 19. or., 24. nota.

³⁴ Ondorio hau doktrinan nagusitzen da. *Ikus* zentzu honetan SUSO VIDAL, “La imputación de pérdidas...”, cit., 4861. or.; PANIAGUA ZURERA, “La determinación y la distribución de los resultados del ejercicio económico en la Sociedad Cooperativa...”, cit., 223. or. eta FAJARDO GARCÍA, “La imputación de pérdidas en la cooperativa”, cit., 233. or.

³⁵ Zentzu honetan PANIAGUA ZURERA, zeinarentzat aipatutako formula zera den: «el resultado de legislar con prisas, de espaldas a la ciencia de la legislación y sin atender a los hechos (la sociedad cooperativa) y a los valores (los valores y principios cooperativos)» [“Régimen económico. Determinación y aplicación de resultados”, In: *Tratado de Derecho de Cooperativas*, I. tomoa, cit., 701. or.].

³⁶ *Ikus* FAJARDO GARCÍA, *La gestión económica de la cooperativa...*, cit., 244. or.; eta egile beraren, “La imputación de pérdidas en la cooperativa”, cit., 220. or.

³⁷ Nabarmentzen dute aipaturiko balizko kontraesana, besteak beste, PANIAGUA ZURERA, “La determinación y la distribución de los resultados del ejercicio económico en la Sociedad Cooperativa...”, cit., 224. or.; FAJARDO GARCÍA, “La masa activa y pasiva en el concurso de cooperativas”, In: *Ciriec. Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativa*, 16. zbkia., 2005, 16. or.; VILLAFÁÑEZ PÉREZ, Itziar, “Presupuestos del concurso de la cooperativa”, In: *Pérdidas, disolución y concurso en sociedades cooperativas*, Juan BATALLER GRAUK zuzenduta, Marcial Pons, Madril, 2012, 159. or. eta GRIMALDOS GARCÍA, María Isabel, “El concurso de la cooperativa y su repercusión en el patrimonio personal del socio”, In: *Revista de Derecho Concursal y Paraconcursal*, 11. zbkia., 2009, 335. eta 336. orr., zeinek baieztatzen duen, otsaileko 9ko 5/2006 Kataluniako Auzitegi Nagusiaren Epaian oinarriturik, erantzukizun mugatuko kooperatiben kasuan, galeren egozteak muga duela bazkide bakoitzak kapital-sozialera egin duen ekarpenean, kontrako kasuan, erantzukizun mugatua fikzio batean bilakatuko baitzen.

³⁸ DIVAR GAZTEIZAURRECOA, Javier, *La alternativa cooperativa*, CEAC, Bartzelona, 1985, 332. or.; PANIAGUA ZURERA, “La determinación y la distribución de los resultados del ejercicio económico



Bazkide kooperatibistentzat legez ezarritako erantzukizuna (edo, nahiago bada, eurek bereganatzen duten arriskua) benetan mugatua egon dadila, sozietate kapitalistetan dagoen bezala, harpidetutako kapital-ekarpenetara, KLO-aren 59. artikulua galerean egoztearen interpretazio posible gisa proposatu da, galera horiek bazkideei egoztearen erreserbak gutxiegi direnean, baina beti kapital-sozialean dituzten kapital-ekarpenen mugarekin. Halaber, arauaren irakurketa honek gehitzen du, kooperatibek duten autonomia-marjinaren barnean, bazkideek galerak kapital-ekarpenetara egozteaz gain, beste bide batzuk erabil litzaketela, alegia, egoztearen beste edozein diru-inbertsioei, itzulketei edo ordainketa zuzenei. Era honetan saihestu ahal izango dute kooperatibaren desegitea kapital-soziala derrigorrezko minimopean gelditzeagatik, kaudimengabezi egoera edo bazkideen ekarpenak derrigorrezko ekarpenaren azpitik geratzea. Batzar Orokorrak edo bazkideak erabakitzen badute galerak ekarpenak ez diren beste kontzeptuei egoztearen, egintza horietatik barne zor bat eratorriko litzateke, hala badagokio, masa aktiboan sartuko dena³⁹.

Hau benetan helburu legitimoa da, baina, arestian ikusi dugunez, gaur egun estatuko legegileak ez du aintzat hartzen⁴⁰. Izan ere, honek, eredu euskalduna jarraituz⁴¹, KLO-aren 59. artikuluan ez du galera mota desberdinen artean bereizten, ezta mugatzen ere galerengatik sortzen den *ad intra* erantzukizuna⁴².

Bere aldetik, Auzitegi Gorenak deklaratu izan du, sozietatearen zorrenatik bazkidearen harpidetutako kapital-ekarpenetara mugatutako erantzukizuna bazkideek euren kooperatibarekin egin dituzten operazioetatik eratorritako galerei aplikaezina dela, alegia, bazkideak sozietatearekin dituen zor horiei (Auzitegi Gorenaren 2011ko martxoaren 2ko Epaia [JE 2011/2618]).

Gainera, Auzitegi Gorena bazkideak kasu jakin batzuetan harpidetu eta ordaindu duen kapital-ekarpenetik harantz erantzun behar dezala aldekoa azaldu da. Horrela, aitortzen du, bazkideak kooperatibak bereganatutako zor batzuk ordaindu behar dituela, hori kontraesana izan gabe bazkidearen erantzukizun mugatuarekin (1987ko martxoaren

en la Sociedad Cooperativa...”, cit., 225. or. eta GADEA SOLER, Enrique, SACRISTÁN BERGIA, Fernando eta VARGAS VASSEROT, Carlos, *Régimen jurídico de la sociedad cooperativa del siglo XXI. Realidad actual y propuestas de reforma*, Dykinson, Madril, 2009, 511. or. Euren lanean, azken autore hauek proposatzen dute, galera sozietatearena bezala ulertzea eta legezko egozte eraentza berezi baten menpe jartzea. Erregimen hau hirugarrenen babesarentzat aurreikusten diren neurrien artean sartuko litzateke eta bateragarria izan beharko litzateke kooperatibei buruzko lege modernoek aurreikusten duten erantzukizun mugatuko eraentzarekin. Zentzu honetan proposatzen dute galerean egozte sistema bat, non bazkideak ordaindu beharko dituen, inbertsioen, ekarpenen edo itzulketen bidez, fondoek ez dutenak estali, baina, edozein kasutan, kapital-sozialera egin duen ekarpenaren mugarekin (op. cit., 508. or.).

³⁹ *Ikus* VILLAFÁÑEZ PÉREZ, “Presupuestos del concurso de la cooperativa”, cit., 159-161. orr., zeinek interpretazio horri eusten dion, nahiz eta lege autonomiko batzuen galerean egozteari buruzko eraentza partikularrak eta galerean jatorria, zein agian kaudimengabeziarena ere, egon daitekeen kooperatibak bazkideekin egin duen jarduera kooperatibizatuan, hirugarrenen kaltetan bazkideen alde kooperatibak egiten dituen gehiegizko ordainketetan nahiz kobratze txikitetan. Horri buruz esaten du, konkurtso-prozedurak berak badituela zentzu horretan eman daitezkeen bidegabekeriak konpontzeko erabilgarriak izan daitezkeen arauak, itzultze-akzioak bezala (71. art.tik 73. art.ra).

⁴⁰ *Ikus* GRIMALDOS GARCÍA, zeinarentzat baja hartu duen bazkidearen galerengatik erantzukizuna bere ekarpenera murrizten den. Eraentza hau sozietatean jarraitzen duen bazkideari hedagarria izango litzateke (“El concurso de la cooperativa y su repercusión en el patrimonio personal del socio”, cit., 336-340. orr.).

⁴¹ Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Fagor Etxetresnak Kooperatibaren konkurtso deklarazio berriaren ondorioz, Euskadiko exekutiboa konprometitu egin da aztertzeraz, nola sar daitezkeen Euskadiko kooperatibei buruzko Legean, bazkideen galerengatik erantzukizuna «bazkideak kapital-sozialera egin dituen ekarpenetara» murrizten duen proposamena.

⁴² FAJARDO GARCÍA, “La imputación de pérdidas en la cooperativa”, cit., 233. or.



13ko AGE [JE 1987/1477])⁴³. Halaber, onetsi izan du, etxebizitza baten bazkide adjudikaziodun batek kooperatibak hirugarren batzuei oraindik zor dien diru-kantitateak ordaindu behar dituela, kostu gehiegikeria, egindako ekarpenen gainean, bereganatuz (*ikus* Auzitegi Gorenaren hurrengo Epaiak: 2011ko uztailaren 15ekoa [JE 2011/6117], 2008ko urtarrilaren 30koa [2008/341], 2005eko urriaren 19koa [JE 2006/1958], 2007ko azaroaren 22koa [2007/8852], 1992ko maiatzaren 22koa [JE 1992/4277], 1991eko ekainaren 18koa [JE 1991/4522] eta 1990eko martxoaren 6koa [JE 1990/1672]).

III. Bazkideen erantzukizuna eta kooperatibaren konkurtso-kitapena

Ikus dezagun jarraian, lan honen hasieran ezarri genuen ordena jarraituz, zer eragina duen sozietatearen zorreatatik eta egozgarriak diren galerengatik erantzukizunaren gainean, kooperatiba konkurtso prozedura batean sartzeak, batez ere, kitapen fasean.

1. Bazkideei ordainketa atzeratutako ekarpenengatik kredituen erreklamazioa

KLO-ak estatutuetan ezarritako kapital-sozial minimoa sozietatearen eratzea baino lehenago erabat ordainduta egotea eskatzen du (45.2. art.). Hala ere, betekizun hori betez gero, derrigorrezko kapital-ekarpenen atzeratzea baimentzen du. Legeak onartzen du derrigorrezko ekarpenak, ez ordea borondatezkoak⁴⁴, harpidetza unean ehuneko 75 arte ordaindu gabe gera daitezela⁴⁵, bazkidea behartuta egonez gainontzekoa ordaintzera Estatutuek edo Batzak Orokorrek erabakitako epean (46.3 art.).

Derrigorrezko kapital-ekarpenen ordainketa atzeratzeko aukera honek ahalbideratzen du, konkurtsoa deklaratu, bazkideak harpidetu duen kapital-ekarpena oraindik ordaintzeke egotea⁴⁶.

⁴³ *Alderatu* 2009ko apirilaren 14ko AGE (2009/4724), non baieztatzen den: «los socios no responden de las deudas sociales más allá de sus aportaciones al capital social: no cabe alterar el régimen legal de garantía de los acreedores sociales en perjuicio de los socios».

⁴⁴ KLO-ak borondatezko ekarpenak harpidetzaren momentuan osorik ordaintzea eskatzen du (47.2 art.). Eskatzen dute ere: GKL-aren 61.2 artikulua, EXKL-aren 52.1 artikulua, MEKL-aren 78.1 artikulua, bigarren paragrafoak, EKL-aren 63.2 artikulua, BUKL-aren 72.2 artikulua, NKFL-aren 45.3 artikulua, bigarren paragrafoak eta MUEKL-aren 67.2 artikulua.

Baimentzen dute, ordea, borondatezko ekarpenen atzeratzea: KatKL-aren 58. artikulua, AndKL-aren 56.5 artikulua, ARKL-aren 50.1 artikulua, ASTKL-aren 85.1 artikulua, VEKL-aren 57 artikulua, 55.1 artikulua, lehenengo paragrafoarekin batera eta MEKL-aren 51. artikulua, 49.1 artikulua, bigarren paragrafoarekin batera.

Azkenik, ez dute ezer aurreikusten borondatezko ekarpenei buruz, EusKL-aren 59. artikulua eta GLKL-aren 62. artikulua.

⁴⁵ Derrigorrezko kapital-ekarpenen ehuneko hirurogeita hamar arte atzeratzea onartzen dute ere: EusKL-aren 58.2 artikulua, KatKL-aren 56.2 artikulua, VEKL-aren 55.1 y 7 artikulua, ARKL-aren 49.1 artikulua, GKL-aren 59.2 artikulua, EXKL-aren 50.1 artikulua, GLKL-aren 60.1 artikulua, MEKL-aren 49.8, 2 artikulua, bigarren paragrafoak, EKL-aren 62.2 artikulua, BUKL-aren 70.1 artikulua, bigarren paragrafoak, NKFL-aren 45.3 artikulua, bigarren paragrafoak, MUEKL-aren 65.1 artikulua eta y ASTKL-aren 82.2 artikulua.

Bere aldetik, AndKL-aren 55.3.2 artikulua harpidetutako kapital-ekarpenaren ehuneko berrogeita hamarren hasierako ordainketa eskatzen du eta gainontzekoaren atzeratzea baimentzen du.

⁴⁶ Posible da, momentu horretan bazkideak oraindik osatu behar dituen kapital-ekarpenak jatorrizkoak ez izatea, baizik eta Batzar Orokorrek erabaki dituen derrigorrezko kapital-ekarpen berriak.



22/2003 Konkurtso Legearen (hemendik aurrera, KL) 48bis 2 artikulua espresuki arautzen du, “konkurtso deklarazioaren ondorioak bazkideen kontrako akzioen gainean” idazpurupean, konkurtsoaren masa aktiboaren kreditu horren erreklamazioa (76.1 art.)⁴⁷.

Arau honen arabera, kooperatibaren konkurtso deklarazioak dakar konkurtso-administrazioak legitimazio eskusiboa izatea, bazkideari kapital-ekarpenaren atzeratutako zatia erreklamatzeko⁴⁸.

Kooperatibaren konkurtsoaren izapideak gauzatu bitartean, konkurtso-administrazioak ekarpenen ordainketa eskatu ahal izango du «*egoki iruditzen zaien unean*». Horrela, ezar dezake, euren funtzioak bereganatuz, kooperatibaren estatutuek edo Batzak Orokorrak zehaztu ez zuten epea, edo aurreratu, bidezkoa den publizitatearekin bazkideak borondatez bete ahal izateko, jadanik espezifikatu dagoena.

Askatasun bera dagokio ordaintzeke dagoen kapitalaren erreklamazioaren zenbatekoa zehazteko. Konkurtso-administrazioa aske da hura bere osotasunean eskatzeko edo pasiboa osorik ordaintzeko behar den neurrian soilik. Eta horren zati bat bakarrik eskatzen bada, bera geroago gutxiegia izanez, erreklamazioa behin eta berriro errepikatu ahal izango du, zorraren mugaraino⁴⁹.

Azken finean, konkurtso-administrazioaren ordainketa atzeratutako kapital-ekarpenen erreklamazioaren une eta zenbatekoa konkurtsoaren interesen menpe daude⁵⁰. Beraz, konkurtsoa kooperatibaren kitapenarekin amaitzen bada, organo horrek zor diren kapital-ekarpenen ordainketa eskatu beharko du, oraindik ez badu egin, masaren zorrak ordaintzeko beharrezkoa den neurrian.

2. Bazkideei galera egozteagatik kredituen erreklamazioa

Nafarroako kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legeak dio, bazkideei egotzi baina ordaindu ez diren galerak «*kooperatibaren aldeko kreditutzat hartuko dira, eta kreditu hori erabili abalko da bazkideak kooperatiban borondatezko edo nahitaezko baja hartu badu ere*» (53.2 art.)⁵¹.

Konkurtsoa deklarata, egotzi diren baina oraindik ordaindu ez diren galerengatik kreditu hau konkurtsoaren masa aktiboaren parte bilakatuko da (KL-aren 76.1 art.). Horretarako, konkurtso-kitapen fasea zabaldua gero, konkurtso-administrazioak bazkide

⁴⁷ GRIMALDOS GARCÍA zuzen baieztatzen duenez, arau hau aplikagarria da, konkurtsoan dagoen kooperatibaren bazkideari eskatzeko jatorrizko ekarpenak, zeinei, itxuraz, zuzenean aipamen egiten dien, nahiz Batzar Orokorrak erabaki ditzakeen balizko «*derrigorrezko ekarpen berriak*» (KLO-aren 46.2 art.). Eta hura, bi kasutan zorraren izaera juridikoa bera delako (bata eta bestea kapital-ekarpenari egiten zaizkion derrigorrezko ekarpenak dira), eta bera delako ere, ordaintzeke dauden kantitateei dagokienez entitate konkurtsatuak eta hartzekodunek duten interesa (“El concurso de la cooperativa y su Repercusión en el patrimonio personal del socio”, cit., 330. or.).

⁴⁸ GRIMALDOS GARCÍA seinatzen du, KL-aren 54.4 artikulua arabera, subsidiarioki legitimatua dagoela kreditu hau eskatzeko, bera masa aktiboan sartzeko asmoarekin, konkurtso-administratioari hura erreklamatzeko eskatu dion hartzekoduna, administratioak ez duenean egin eskaeraren ondorengo bi hilabeteen barruan (“El concurso de la cooperativa y su repercusión en el patrimonio personal del socio”, cit., 329. or.).

⁴⁹ *Ikus* GRIMALDOS GARCÍA, “El concurso de la cooperativa y su repercusión en el patrimonio personal del socio”, cit., 329. or. eta egile honek gaur aldatuta dagoen KL-aren 48. artikulua gainean aipatzen duen bibliografia.

⁵⁰ MORILLAS JARILLO, María José, *El concurso de las sociedades*, Iustel, Madril, 2004, 365. or.

⁵¹ Galeren egozteagatik kooperatibak izan dezakeen ordaintzeke dagoen kreditua obligazio elkarkariak dituen “kooperatiba sozietate kontratu” batetik dator (SUSO VIDAL, “La imputación de pérdidas...”, cit., 4864. or., 35. nota).



kooperatibistari bere ordainketa eskatuko dio⁵². Izan ere, organo honek, kitapen fasearen hasierarekin masa aktiboaren kudeatzaile bakarra bilakatzen dena, sozietateak izendatutako administratzaileak eta kitatzaileak une horretan euren kargua uzten dutelako (KL-aren 145.3 *in fine*), masa aktiboa «*konkurtsuaren interesak kontuan izanda*» artatzeko obligazio orokorra dauka (KL-aren 43.1 art.). Betebehar honek nahitaez dakar konkurtsu-administrazioak masa aktiboa osatzen duten eta oraindik kobratu ez diren bazkideen kontrako galeren egozteagatiko kredituak eskatu behar izatea⁵³.

Kitapen fasean Batzar Orokorrak bizirauteak pentsarazi dezake, fase honetan ere, kooperatibaren barne organo honi dagokiola oraindik, esklusiboki, bazkideari egozgarriak diren galerengatiko kredituen kopuruaren zehaztea edo indibidualizazioa. Eta honek espresuki egotzita gero, soilik, eskatu ahal izango direla. Horrela izanez gero, ondo nabaritu denez, Batzarra ez eratzea edo honen galeren egoztearen aurkako akordioa nahikoa izango lirakeke bazkideek saihesteko legeari edo estatutuei jarraiki, euri egozgarriak diren, baina konkurtsu deklarazioaren unean indibidualizatu gabe dauden galeren ordainketa⁵⁴. Hori dela eta, egokia dirudi ulertzea, konkurtsu prozedurak dakarren interbentzioaren ondorioz, batez ere hura kitapenera zuzenduta dagoenean, Batzar Orokorraren eskuduntza esklusiboa galeren egoztearen gainean erabakitzeke [KLO-aren 21.2 a) art.] galtzen dela, bere galdagarritasunari buruzko guztia konkurtsu-administrazioari pasatuz⁵⁵.

Hau da, gainera, Konkurtsu Legeak berak ezarritakoa ordaintzeke dauden sozietate-ekarpenen ordaintketarentzat (48bis 2 art.). Arau honek, ikusi dugunez, era baztertzaile eta erabatekoan legitimatzen du konkurtsu-administrazioa, konkurtsuaren izapideak gauzatu bitartean, erreklamatzeko, galerengatiko kreditua bezala, sozietatearen konpromisotik eratoritzen den kreditu hura⁵⁶.

Bi sozietate-obligazio hauek duten jatorri berak ahalbideratzen du, euren izaera ekonomikoarekin eta kooperatibaren ondarea babesteko duten xedearekin batera, KL-aren 48bis 2 artikulua aplikazio analogikoa bazkideak egotzi zaizkion kooperatibaren galerengatik erantzuteko dituen epeei⁵⁷. Konkurtsuan erori den entitatearen

⁵² KLO-aren 73.3 artikulua kitatzaileei, kooperatibaren kitapen arruntaren esparruan, «*hirugarrenen edo bazkideen kontra ordaintzeke dauden kredituak erreklamatzeko eta jasotzeko*» obligazioa ezartzen die.

⁵³ SUSO VIDAL, «La imputación de pérdidas...», cit., 4864. or.

⁵⁴ KLO-aren 51.2 artikulua *ab initio* ezarritakoaren arabera, baja hartu duen bazkideari dagokion diru-itzulketaren zenbatekoa kalkulatzeko, benetan ordaindu diren ekarpenetik bazkideari «egotzi zaizkion eta egozgarriak diren» galerak kendu behar dira, baja gertatu den ekitaldian amaitzean egin beharreko kitapenean agertuko diren guztiak, ekitaldi horretakoak edo lehenagokoak izan nahiz berdindu gabe egon. Beraz, logikoa dirudi, SUSO VIDALEk baieztatzen duen bezala, galerengatiko erantzukizun neurri bera (benetan egotzi direnak eta egozteke daudenak) exijitzea ere kooperatibaren konkurtsu-kitapenean, non horren ondorioz bazkideak ere hura izateari utzi behar dion («La imputación de pérdidas...», cit., 4870. or., 50. nota).

⁵⁵ Zentzu honetan SUSO VIDAL, «La imputación de pérdidas...», cit., 4865. or. Konkurtsu-administrazioak egotzita gero, kitapen fasean ez litzateke posible izango aukeratzea KLO-aren 59. artikulua aurreikusitako asetze era desberdinen artean. Izan ere, indargabetuko da, alde batetik, geroko itzulketei galerak egozteko aukera, horiek sozietatearen desegitearekin ezinezkoa bilakatzen direlako, eta, bestaldetik, kapital-ekarpenei edo bazkidearen inbertsioei egozteko aukera, KL-aren 58. artikulua konkurtsuaren kreditu nahiz zorren konpentsazioa debekatzen duelako. Laburbilduz, bazkideari galera egotzita, ordaintzeko egongo den modu bakarra bere ordainketa zuzena izango da (SUSO VIDAL, *op. cit.*, 4867-4870. orr.).

⁵⁶ Jatorrizko KL-aren 48. artikuluari dagokionez, GRIMALDOS GARCÍAk baieztatzen du, arauaren orokortasuna dela galerak eskatzeko akzioei aipamen ezaren arrazoia. Arauak ez litzuke aurreikusiko sozietate mota bakoitzari dagozkion berezitasunak, bazkide kooperatibistei galerak egozteko aukera bezala («El concurso de la cooperativa y su repercusión en el patrimonio personal del socio», cit., 334. or.).

⁵⁷ SUSO VIDAL, «La imputación de pérdidas...», cit., 4868. or.



kaudimengabeziak ukitzen dituen hartzekodunen interes nagusia kontuan hartuta, konkurtso-administrazioak galeren egozteagatiko kredituen epemuga aurreratu ahal izango du. Euren ordainketarako ordain zuzena atzeratua aukeratu zenean edo egoztea ondorengo zazpi urteetan bazkideari legozkiokeen itzulketen kontu. Bigarren atzeratutako konpentsazio mota honi buruz esan izan da, konkurtso-administrazioari baimendu egin behar zaiola epaileari epe berri bat eskatzera *ex KZ-ren* 1128. artikulua, jatorrizkoa ezinezkoa bilakatu baita kooperatibaren kitapenarekin. Izan ere, erremate horrek dakarren sozietatearen kitapenak galarazten du geroan sortzea itzulketak eta soberakinak, zeini galerak egotzi ahal izango zaien⁵⁸.

Dena den, konkurtso-administrazioak kooperatibak bazkidearen kontra duen galerengatiko kredituaren zenbatekoaren osotasuna eskatu behar du. Hemen, ordainketa atzeratutako ekarpenen arloan ez bezala, ez dauka bere eskaera kitapenaren premien arabera moderatzeko ahalmenik.

Halaber, bere errekerimendua ez da egongo sozietate-ondarearen kitapenaren emaitzen menpe. Izan ere, kooperatibaren bazkideen galerengatiko erantzukizuna ez da bigarren graduko erantzukizuna: lehen graduko erantzukizuna da. Bazkideak ez du galerengatik subsidiarioki erantzuten. Kontzeptu horregatik zor duena sozietate-ondarera bueltatu behar du, honen parte izateko eta, kasu honetan, kitatua izateko⁵⁹.

Konkurtso-kitapenaren ondoren, eta zorrak ordainduta, soberakina egonez gero, galeren egozteagatik ordaindu duten bazkideek parte hartu ahal izango dute gainontzeko bazkideekin sozietatearen ondasunen banaketan, KLO-aren 75. artikulua erregelen arabera dagokien kitapen-kuota soilik eskuratuz.

IV. Irabazpidezko sozietatearen erantzukizuna

Hurrengo orrietan irabazpidezko eraentzapean ezkontuta dagoen bazkidearen ezkontidearen egoera aztertuko dugu. Nola eragiten dion kooperatibaren konkurtso-kitapenak, bere ezkontidea sozietate horren bazkidea denean. Honek emango digu, bere momentuan aurreratu genuenez, erabakigarria den azken datua haztatzeko irabazpidezko eraentzaren egokitasuna, ezkontideren bat kooperatiba baten bazkidea denean.

1. Irabazpidezko eraentzapean ezkontuta dagoen bazkide kooperatibistaren ezkontidearen erantzukizun eza KLO-aren 15.3 eta 59. artikuluei jarraiki

Irabazpidezko eraentzapean ezkontuta dagoen bazkide kooperatibistaren ezkontideari buruz egin beharreko lehenengo oharrek zerikusia du hurrengo galderarekin: KLO-aren 15.2 eta 59. artikuluetan aurreikusitako sozietatearen zorregatik erantzukizunak eta sozietatearen galerengatiko egozte erregimenak ezkontide hau ukitzen dute? Gure iritziz, erantzuna ezezkoa da. Izan ere, ezkontide hau ez da bazkidea⁶⁰.

⁵⁸ SUSO VIDAL, “La imputación de pérdidas...”, cit., 4868-4869. orr., zeinek proposatzen duen, kontuan harturik kitapen fasea bereizten duen larrialdia, epaileak ezarriko duen epe berria KLO-aren 59. artikulua ezartzen duen hilabetearen inguruan egotea. Epe hau ezartzen da, bazkideari legozkiokeen itzulketen kontu egotzi behar ziren galerak ordaintzeke geldituko balira, zazpi urteko epea igarota gero.

⁵⁹ SUSO VIDAL, “La imputación de pérdidas...”, cit., 4871. or. eta, berriki, egile beraren, “El concurso de la sociedad cooperativa”, In: *Tratado de Derecho de Cooperativas*, II. tomoa, cit., 1570. or.

⁶⁰ Galerengatik erantzukizunari dagokionez, gogoratu behar da, ez duela ukitzen, KLO-aren arabera, edozein bazkide, baizik eta bakarrik bazkide arrunta edo jarduera kooperatibizatuaren bazkide «erabiltzailea». Bazkide kolaboratzaileek ez lukete izango erantzukizun hori. Hauek ez dute



Kooperatiban, sozietate-partaidetzak, edo nahiago bada, horren titularitateak ematen duen bazkide posizioak dakar, lankidetzako eta eduki konplexuko kontratuzko erlazio baten parte izatea, integratua dagoena eskubideez, ahalmenez eta ondarezko zein administraziozko izaera duten betebeharez eta obligazioz⁶¹. Gainera, *intuitu personae* ezarritako erlazio bat da: bazkidearen baldintzak eta ezaugarriak erabakigarriak dira, bere parte-hartzea ematen baita jarduera kooperatibizatuan zein eremu ekonomikoan eta sozietate-kudeaketan⁶².

Irabazpidezko eraentzapean ezkontuta dagoen pertsona batek fondo komunen kontu sozietate pertsonalista batean partaidetza eskuratzen duenean, partaidetza hau, KZ-ren 1347.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, irabazpidezko ondasuntzat har daiteke⁶³. Hala ere, horrek ez du esan nahi bazkide baldintza beste ezkontideari hedatzen zaionik. Ezkontide bat kooperatiba batekin elkartzen denean kapital-sozialera irabazpidezko ondasunak emanez, ezin da esan sozietate horrek benetan bi bazkide berri onartzen ari denik.

Esan denez, aipatutako irabazpidezkotasunak ezkontideen arteko barne erlazioaren eremuan jarduten du, partaidetzaren titularitatea ukitu gabe. Azken hau sozietate (kooperatiba) zuzenbidearen arabera zehazten da⁶⁴. Partaidetzaren titularitateak ezkontide harpidedunean jarraitzen du, barne erlazioan partaidetzak berak irabazpidezko izaera izatea kaltetu gabe. Kanpotik, sozietatearen (kooperatibaren) aurrean, irabazpidezkotasun horrek ez dakar, berez, ez partaidetzaren transmisio bat (arautzen duten sozietate-erregelen arabera eman daitekeena soilik⁶⁵), ez bere edukiaren zatiketa bat, bazkide baldintzaren (titulua) eta

parte hartzen galderak sortarazten dituen jarduera kooperatibizatuan eta obligazio nagusizat dute ordaintzea Batzar Orokorrek zehaztuko duen ekarpen ekonomikoa.

⁶¹ *Ikus* sozietate pertsonalistako partaidetzaren izaera juridikoari buruz, sozietate kontratu batean parte izatetik eratoritzen den erlazio juridiko gisa, CAPILLA RONCERO, *Comentarios al Código civil y Compilaciones forales*, Manuel ALBALADEJOK eta Silvia DIAZ ALABARTEK zuzenduta, XXI. tomoa, 1. bolumena, Revista de derecho Privado, Madril, 1986, 168. or. eta hurr. orr. eta GIRÓN TENA, José, *Derecho de sociedades, I, Parte general. Sociedades colectivas y comanditarias*, Madril, 1976, 286. or. Bere aldetik, PAZ-ARESENTZAT partaidetza, sozietate kontratu batean parte izatetik eratoritzen den erlazio juridikoa izateaz gain, eskubide subjektibo bat da (*Comentario del Código Civil*, II, Madril, 1991, 1327-1328. orr. eta *La responsabilidad del socio colectivo*, cit., 79. or.).

⁶² GINTO MONZÓN, Carlos Martín, “La cooperativa: concepto”, In: *Manual de Derecho de sociedades cooperativas*, Santiago MERINO HERNÁNDEZEK zuzendua, Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, Vitoria-Gasteiz, 2008, 37-38. orr.

⁶³ Arau honek, subrogazio errearen printzipioa aplikatuz, irabazpidezkotzat hartzen ditu, «*ondare komunaren kontura kostu bidez eskuratutako*» ondasunak.

⁶⁴ KLO-aren arabera, kooperatiban sartzea ez da hura nahi duen edonoren esku dagoen aukera bat. Kooperatibista baldintza eskuratzeko (KLO-aren 12.2 art.), eta horri eusteko (KLO-aren 17.5 art.), beharrezko da entitatearen estatutuek horretarako ezartzen dituzten baldintzak betetzea (KLO-aren 12.2 art.). Kooperatibaren Artezkaritza-kontseiluari dagokio ebaztea aurkezten diren onarpen eskaeren gainean. Onarpen nahiz ukatze ebazpenaren kontra errekurtsioa ezar daiteke, Errekurtsoko-batzordearen aurrean edo, honen ezean, Batzar Orokorren aurrean (KLO-aren 12.2 eta 3 art.).

⁶⁵ KLO-aren arabera, bazkide baldintza ezin da transmititu. Kapital-ekarpenak besterendu daitezke, baina horrek ez dakar bazkide baldintzaren transmisioa. Zehazki, KLO-aren 50.a) artikulua xedatzen du ekarpenak transmititu daitezkeela «*por actos inter vivos, únicamente a otros socios de la cooperativa y a quienes adquieran tal cualidad dentro de los tres meses siguientes a la transmisión que, en este caso, queda condicionada al cumplimiento de dicho requisito*». Bere aldetik, KLO-aren 50.b) artikulua *mortis causa* transmisioa onartzen du, baldintza gisa ezarritako jaraunsleak bazkideak izan daitezela eta ekarpena eska dezatela, edo, bazkideak ez balira izango, aldeztatik onartuak izan daitezela. Inguruabarrak ez balira ematen, «*ekarpenari dagokion kredituaren kitapena eskatzeko eskubidea izango dute*».



bere balioaren (*emolumentum*) artean⁶⁶. Ez dago zatiketarik sozietatearen (kooperatibaren) aurrean, honentzat partaidetzak jarraitzen baitu izaten bere osotasunean, hura integratzen duten eskubideekin eta ahalmenekin, bazkidea den ezkontidearena⁶⁷.

Sozietatearen aurrean, KZ-ren 1347.3 artikulua arabera, partaidetzari dagokion irabazpidezko izaerak barne-garrantzia du soilik eta bere trinkotasuna bazkidearen partean elkartzearena edo *croupier konbentzioaren* parekoa da (KZ-ren 1696. art.). Azpipartaidearen edo *croupierraren* bezala, ezkontideak sozietatearentzat (kooperatibarentzat) guztiz arrotza den «eduki osoko azpipartaidetza» dauka⁶⁸. Ezkontidea ez da sartzen sozietatean eta honen barnean ez du kudeaketa edo kontrol ahalmenik⁶⁹. Horren ondorioz, ez dago inolako titulurik kooperatibaren kitapen fasean ezkontide horri erantzukizunik eskatzeko.

2. Irabazpidezko eraentzapean ezkontuta dagoen bazkide kooperatibistaren erantzukizunak ukitzen dituen ondasunak

Bazterturik ezkontidearen erantzukizuna *ex* KLO-aren 15.3 eta 59. artikulua, galdetu behar dugu, zer ondarearen gainean eraginkorra egin dezakeen hartzekoduna den kooperatibak irabazpidezko eraentzapean ezkontuta dagoen bazkide kooperatibistaren erantzukizuna. Eta zer ondarek jasan beharko duen erantzukizun hori behin betiko. Galdera hauen azterketan, bi egoera bereizi behar ditugu, nahiz eta bietan emaitza berdina izan. Lehenengoa ematen da, sozietate-partaidetza fondo komunaren kontu eskuratu denean. Bigarrena, berriz, fondo pribatuaren kontu eskuratzegatik, sozietate-partaidetza pribatutzat hartu behar denean⁷⁰.

⁶⁶ Sektore doktrinal adierazgarri batentzat, pertsona-sozietate bateko partaidetza eskubidea ondasun komunaren kontu eskuratu denean, partaidetzaren ondarezko edukia edo *emolumentum*-a irabazpidezkoa da *ex* KZ-ren 1347.3 artikulua. Bazkide baldintza edo titulua, pertsonari datorkion eta transmitiezina den heinean, berriz, ondasuna pribatiboa da *ex* KZ-ren 1346.5 artikulua.

Korrante doktrinal honek, aipatutako manamenduen arauak sozietate pertsonalistekiko sortarazten duten gatazkari aurre egiteko asmoarekin, ondasuna, alegia, sozietate-partaidetza, zatitzen du. *Ikus*, guztiengatik, LACRUZ BERDEJO, José Luis, “Bienes comunes y bienes privados en el régimen matrimonial aragonés”, In: *RDN*, 13-14. zbkia., 1956, 153. or. eta hurr. orr., eta egile beraren, *Derecho de familia. El matrimonio y su economía*, Bartzelona, 1963, 508. or. Kooperatibei dagokienez, *ikus* BENAVENTE MOREDA, Pilar, *Naturaleza jurídica de la sociedad de gananciales. Legitimación individual de los cónyuges*, Centro de Estudios Registrales, Madril, 1993, 439. or., zeinek zehazten duen, sozietate mota horren eduki ekonomikoa osatzen dutela «las aportaciones que el socio realiza, que se traducen en títulos nominativos excluidos de la categoría de títulos valores, y que son representativos del capital, bienes o derechos aportados a la cooperativa».

⁶⁷ CADARSO PALAU, Juan, *Sociedad de gananciales y participaciones sociales*, Tecnos, Madril, 1993, 140-141. orr. *Ikus*, zentzu berean, SEISDEDOS MUIÑO, Ana, “Sociedad de gananciales y sociedades cooperativas: los derechos sobre el capital y derivados en los casos de divorcio y separación (un análisis de la Ley Vasca)”, In: *RGLJ*, 3. zbkia., 2012, 431-434. orr. Irabazpidezko titularitate formalaren eta irabazpidezko titularitate materialaren arteko bereizketari dagokionez, *ikus* RAGEL SÁNCHEZ, Luis Felipe, “La sociedad de gananciales (2). El pasivo de la sociedad”, In: *Tratado de Derecho de la Familia. Los regímenes económicos matrimoniales (I)*, III. bolumena, Mariano YZQUIERDO TOLSADAK eta Matilde CUENA CÁSASEk zuzenduta, Aranzadi Thomson Reuters, Iruñe, 2011, 775. or.

⁶⁸ GIRÓN TENA, *Derecho de sociedades...*, cit., 607. or.

⁶⁹ *Ikus* PAZ-ARES, *La responsabilidad del socio colectivo*, cit., 80-81. orr. eta CADARSO PALAU, *Sociedad de gananciales...*, cit., 141. or.

⁷⁰ Partaidetza edo bazkide baldintza pribatiboa da *ex* KZ-ren 1346.1 artikulua, kooperatibako sarrera eta kapital-ekarpena ezkontza ospatu baino lehenago gertatu baziren. Halaber, pribatiboa da, *ex* KZ-ren 1346.3 artikulua, geroago gertatu baziren, baina fondo pribatiboen kontu. Azken kasu hauetan,



Lehenengo hipotesian, sozietate-partaidetza *ad intra* irabazpidezkoztat hartzea nahiko oinarria da, KZ-ren 1365.1 artikulua aplikatzeko eta, horren ondorioz, atzemateko irabazpidezko ondareak, bazkide kooperatibistaren ondare pribatuarekin batera, sozietatearen zorrengeatik eta galerengatik erantzuten duela ere⁷¹. Erantzukizun honen izateko arrazoia ulertzen da, kontuan izaten badugu biak lege-aginduz ezkontide bati dagokion «*irabazpidezko ondasun baten kudeaketagatik*» edo administrazioagatik sortarazi direla. Ondasun hau sozietate-partaidetza da eta ezkontidea bazkide kooperatibista da (izan ere, KLO-ak sozietate-eskubideak egikartzeko legitimatzen duen bakarria bazkide kooperatibista da⁷²). Egoera hau KZ-ren 1384. artikuluan jasotakoaren antzekoa da, non, doktrinaren ustez, legeak ezkontide bati irabazpidezko ondasun bat kudeatzeko boterea erreserbatzen dion⁷³.

KLO-aren 15.3 eta 59. artikuluetatik eratortzen diren bazkide kooperatibistaren obligazioak, irabazpidezko sozietatearen obligazioak izateaz gain (behin behineko eta *erga omnes* erantzukizuna), irabazpidezko sozietatearen zamak dira (behin betiko eta *inter partes* erantzukizuna)⁷⁴, KZ-ren 1362. 2 artikuluari jarraiki. Honen arabera, «*gastuak irabazpidezko sozietatearen ardurapekoak izango dira, gastuak sortarazten dituenean [...] ondasun komunen eskuratzekoak, edukitzeak eta gozamenak*».

Bere aldetik, sozietate-partaidetza pribatutzat hartu behar den egoeretan, bazkide kooperatibista ukitzen duen sozietatearen zorrengeatiko eta galerengatiko erantzukizuna irabazpidezko ondasunen kontu ordaindu ahal izango da, hau baita ezkontide batek hartu duen zorra «*ondasun pribatiboak modu arruntean administratzean*» (KZ-ren 1365.2 art.). Ikusi dugunez, konprometitutako derrigorrezko kapital-ekarpenak betetzeko obligazioa zein egotzitako sozietatearen galerak ordaintzeko obligazioa berezko obligazioak edo administratzen den ondasun pribatiboaren nahitaezko ondorioa dira: partaidetza edo kooperatiba sozietatean bazkide baldintza. Beraz, irabazpidezko ondarea aipatutako bidegatik erantzungo du⁷⁵.

Kasu honi dagokionez, esan beharra dago, irabazpidezko sozietatearen erantzukizuna ez dela ematen bakarrik kooperatiba hartzekodunaren aurrean, baizik eta

froga arazo bat eman daiteke, KZ-ren 1361. artikuluan ezartzen den irabazpidezko presuntzioa ezereztea nahitaezkoa baita.

⁷¹ Zentzu berean bazkide kolektiboari dagokionez, PAZ-ARES, *La responsabilidad del socio colectivo*, cit., 82. or. Sozietate pertsonalistaren zorrengeatiko irabazpidezko masaren erantzukizunaren kontra, RAMS ALBESA, Joaquín, *La sociedad de gananciales*, Tecnos, Madril, 1992, 94. or.

⁷² KLO-aren 16.2 a) artikulua ezartzen du bazkideak bereziki duela eskubidea «*a asistir, participar en los debates, formular propuestas según la regulación estatutaria y votar las propuestas que se les sometan en la Asamblea General y demás órganos colegiados de los que formen parte*».

⁷³ *Ikus* PÉREZ MARTÍN, Antonio Javier, *Tratado de Derecho de Familia. Régimenes económicos matrimoniales. Constitución, funcionamiento, disolución y liquidación*, V. tomoa, 1. bolumena, Lex Nova, Valladolid, 2009, 164. or., non aipatzen duen KZ-ren 1384. artikulua aplikazio adibide gisa «*la administración de las acciones de sociedades mercantiles que tienen el carácter ganancial aunque figura como titular uno solo de los cónyuges, perteneciendo a este cónyuge el derecho a voto*».

⁷⁴ *Ikus*, guztiengatik, behin betiko erantzukizunaren eta behin-behineko erantzukizunaren (behin betiko edo behin-behineko pasiboaren) arteko bereizketari buruz, RAGEL SÁNCHEZ, *Ejecución sobre bienes gananciales por deudas de un cónyuge*, Tecnos, Madril, 1987, 33. or., eta egile beraren berriki, «*La sociedad de gananciales (4). El pasivo de la sociedad*», In: *Tratado de Derecho de la Familia. Los regimenes económicos matrimoniales (I)*, III. bolumena, Mariano YZQUIERDO TOLSADAK eta Matilde CUENA CASASEK zuzenduta, Aranzadi Thomson Reuters, Iruñe, 2011, 1015-1019. orr. eta GUILARTE GUTIERREZ, Vicente, *Gestión y responsabilidad de los bienes gananciales*, Lex Nova, Valladolid, 1991, 342-343. orr. *Ikus*, halaber, 2004ko azaroaren 3ko AGE (JE 2004, 6868).

⁷⁵ Bazkideari egotzi zaion lan-kooperatibaren galerengatiko erantzukizuna irabazpidezko ondarearen kontura ase ahal izango da ere, kasu horietan, ezkontidearen «*jarduera profesionalaren ariketa arrunta*» jarduera kooperatibizatuan parte hartuz ematen den heinean (KZ-ren 1365.2 art.).



ezkontideen arteko barne-erlaziora hedatzen dela, KZ-ren 1362.3 artikulutik eratortzen den bezala: *«gastuak irabazpidezko sozietatearen ardurapekoak izango dira, gastuak sortarazten dituenean [...] ezkontideetatik edozeinen ondasun pribatiboak modu arruntean administratzeak»*.

Labur esanda, irabazpidezko ondareak KLO-aren 15.3 eta 59. artikuluetatik eratorritako bazkide-ezkontidearen obligazioengatik behin-behinean eta behin betiko erantzun behar du, biak irabazpidezko sozietatearen obligazioak eta zamak diren neurrian. Bestalde, kalifikazio hau bat dator sozietate-partaidetzaren emaitzak positiboak direnean egiten denarekin. Horrela, itzulketa kooperatiboek beti dute irabazpidezko izaera⁷⁶. Baldintza honetara irits daiteke, seinlatu den bezala, bi bide desberdinegatik. KZ-ren 1347. artikulua lehengo zenbakiaren bidez, *«ezkontideetatik edozeinen lan edo industriaren bidez lorturiko ondasunak»* bezala, itzulketak banatzen baitira kontuan hartuz bazkide bakoitzak kooperatibarekin burutu dituen eragiketa, zerbitzu edo jarduerak. Baina, etekin forma bat diren neurrian, aipatutako kalifikazioarengana irits daiteke ere, KZ-ren 1347.2 artikulua bidez. Honek irabazpidezko hartzen ditu *«ondasun pribatiboek eta irabazpidezkoek sortutako fruitu, errenta edo interesak»*. Artikulu honen aplikazioaren ondorioz, kapital-sozialak sortarazi ditzakeen interesak ere irabazpidezko ondasunen parte bilakatzen dira, ekarpena diru pribatiboaz gauzatu denean barne⁷⁷.

Irabazpidezko ondarearen erantzukizun hau erantzukizun zuzen bat da. Hartzekoduna ez dator behartua bazkidearen ondarean alde aurreko eskusioa egitera. Izan ere, KZ-ren 1369. artikulua araberak, *«ezkontide baten zorrak aldi berean sozietatearen zorrak badira, sozietatearen ondasunek erantzukizun solidarioa izango dute zor horien gain»*⁷⁸.

V. Ondorioak

Puntu honetara iritsita, erantzun behar diogu lan honen galdera nagusiari, alegia, irabazpidezko sozietatearen egokitasuna, ezkontideren batek kooperatibaren bazkide baldintza duenean. Erantzuna nabarmenki ezkontza eraentza ekonomiko honen aurkakoa da, lan honen zehar pilatutako arrazoiengatik, eta orain, ondorio gisa formulatzen ditugunak:

- KLO-aren 15.3 artikulua kooperatiba erantzukizun mugatuko sozietate gisa eratzten du, non bazkideek ez duten sozietatearen zorreatatik erantzuten. Eta aginduzko eran egiten du, baimendu gabe, bere legezko aurrekariek ez bezala, estatutuek hura mugagabeko erantzukizun sozietate gisa eratzeko aukera izan dezatela.
- Sozietatearen zorreatatik erantzukizun efektuentzat, bazkide kooperatibistaren obligazioa, honek sozietatearen aurrean duen obligazioaren betetzera murriztuko litzateke, alegia, konprometitu dituen derrigorrezko eta borondatezko kapital-ekarpenak egitea. Eta sozietatearen hartzekodunek ezingo diote exijitu (ezta zuzenean demandatu ere) kooperatibak bereganatutako zorreatatik eta

⁷⁶ FAJARDO GARCÍA itzulketa era honetan definitzen du: «devolución por la cooperativa al socio de lo que le cobró de más o le pagó de menos» (“La imputación de pérdidas en la cooperativa”, cit., 214. or.). KLO-ean, ikusi dugunez, itzulketa kooperatiboek, emaitza kooperatiboak barneratzeaz gain, emaitza extrakooperatiboen eta aparteko emaitzen portzentaje altu bat barneratzen dute (58.2 eta 3 art.).

⁷⁷ *Ikus* xehetasun gehiagorekin SEISDEDOS MUIÑO, “Sociedad de gananciales y sociedades cooperativas: los derechos sobre el capital y derivados...”, cit., 442-445. orr.

⁷⁸ *Ikus* KZ-ren 1369. artikuluar dagokionez, RAGEL SÁNCHEZ, “La sociedad de gananciales (4). El pasivo...”, cit., 1151-1153. orr.



- konpromisoengatik euren ondarearekin pertsonalki erantzun dezaten (hirugarrenen aurrean *ad extra* erantzukizunaren murrizketa).
- Nahiz eta kooperatibaren bazkideak ez erantzun hirugarrenen aurrean sozietatearen zorrengeatik, honek beregana dezake berak kapital-sozialera egin duen hasierako ekarpenera mugatzen ez den arrisku bat. Bereziki, galeren egozteagatik (KLO-aren 59. art.), baina, halaber, derrigorrezko ekarpen berrien eskatzeagatik edo aldizkako kuoten ezarpenagatik, bazkidea obligatua gera daiteke, eskusiboki kooperatibaren aurrean erantzutera, bere jatorrizko ekarpenen zenbatekotik harantz.
 - Bazkideari galerak egozteko aukera kooperatiba erregimenaren berezitasuna da, sozietate zuzenbidearentzat arrotza izanik. Aukera honen justifikazio klasikoa bazkideak jarduera kooperatibizatuarekiko duen «erabiltzaile» baldintzan oinarritzen da. Horrela, kooperatibak bazkideari honek bere alde egin dituen prestazioengatik gehiegi ordaintzen badio edo kooperatibak bazkideari honen alde egin dituenagatik gutxiegi kobratzen badio, diru aurreratze eta ordainketa politika horrek sozietateari eragin dion galera bazkidearen gainean jartzea bidezkoztat jotzen da.
 - Kooperatibaren konkurtso-kitapen fasearen zabaltzeak bazkide kooperatibistaren ondare pertsonalaren gainean eragina izan dezake. Konkurtsoaren momentu honetan, konkurtso-administrazioak exijitu behar du bazkideek zor dezaketena ordainketa atzeratutako konprometitutako ekarpenengatik eta euren egozgarriak diren sozietatearen galerengatik.
 - Konkurtsoa deklaratu, posible da, Batzar Orokorraren akordio bategatik konkurtso deklarazioaren data baino lehenago indibidualizatu gabe egotea balizko bazkide-zordun bakoitzarekiko, legearen eta estatutuen arabera, bazkideei egozgarriak diren galeren zenbatekoa. Kasu honetan, masa aktiboaren kreditu horien zehaztearen eta zenbatekoaren eskuduntza konkurtso-administratzaileena izan behar du.
 - KLO-aren 59. artikulua arabera, kooperatibako bazkideei edozein sozietatearen galera egotzi ahal izango zaie, zeinengatik era mugagabe batean erantzun beharko duten, alegia, KZ-ren 1911. artikulua aurreikusten duen moduan, bere oraingo nahiz geroko ondasun guztiekin. Kontzeptu honengatik duen erantzukizuna ez da murrizten kapitalera eginiko ekarpenera.
 - KLO-aren 15.2 eta 59. artikuluetan aurreikusitako sozietatearen zorrengeatik erantzukizun eta sozietatearen galerengatik egozte erregimenek ez dute ukitzen irabazpidezko eraentzapean ezkondata dagoen bazkide kooperatibistaren ezkontidea. Hau ez da bazkidea eta. Kooperatibako partaidetza irabazpidezko fondoekin lortu izanak ez du esan nahi bazkide baldintza beste ezkontideari hedatzen zaionik.
 - Sozietate-partaidetza pribatiboa nahiz irabazpidezkoa denean, irabazpidezko ondarea eratzen duten ondasunek behin-behineko (KZ-ren 1365.1 eta 2 art.) eta behin betiko eran (KZ-ren 1362.2 eta 3 art.) erantzungo dute bazkidea den ezkontideak kooperatibaren aurrean sozietatearen zorrengeatik eta galerengatik dituen zorrengeatik. Gainera, ondasun komunen erantzukizun hau zuzena da (KZ-ren 1369. art.).